

BALIO PROPOSAMENA

Azken urte hauetan zapatak bezalako produktuak zailtasun handia dira ingurumenerako eta baita ekonomikoki ere. Pertsonak gutxi gorabehera 375 euro gastatzen dituzte urtean zapatetan; gainera, zapatak askotarikoak dira, hau da, gauza bakoitzerako zapata desberdin bat dago, korrika egiteko, mendian ibiltzeko, uretan kirolak egiteko, etab.

Arrazoi guzti horiengatik, gure enpresak arazo horiek guztiak errazten dituen zapata bat aurkezten du, hau da, armairuan behar bakoitzerako zapata pare asko eduki beharrean, produktu honekin zapata horiek guztiak batean eduki ditzakezu. Gure produktuak ez du aurrezpen ekonomikoa bakarrik ekartzen ere, baizik eta baita espazio, etxe edo joan-etorrietan ere, hala nola bidaietan, etab.

